Hazkundea, garapena, aurrerapena (1985)

Termino edo hitz hauek funtsezkoak dira gau egungo ekonomi historia aztertzeko. Hemen aurkezten dizuguena R. Cameron historialari iparramerikarrak ikuspuntu ekonomiko nahikoa ortodoxotik emandako esanahiak dira.

Zergatik dira herrialde batzuk aberatsak eta beste batzuk pobreak? Lehen unean oso sinplea dirudien galdera horrek egun dagoen arazo sakonenetako baten muinera garamatza: ekonomiaren garapen maila desberdinaren arazora. Horrekin konparatuz, gerraren eta bakearen, demografiaren presioaren eta ingurugiroaren arazoa dira antzeko maila eta garrantzia duten bakarrak. (...) Milioiak dira gosez eta gaixotasunez hildakoak garapen maila baxua agertzen duten herrialdeetan; eta ez ez zegoelako janaririk edo botikarik, zegoena ez zelako behar zutenen artean banatu baizik. Estatu Batuek eta beste herrialde boteretsu batzuek milaka milioi dolar gastatu dituzte inguruko herrialde behartsuak laguntzen. Saiakera horren garrantzia baztertu gabe, maila nahiko altua erakusten duten herrialde gutxietan dagoen errentaren eta maila baxua erakusten duten herrialde ugarietan dagoen errentaren arteko tartea gero eta handiagoa da urtez urte.

Egoerak paradoxa bat dirudi. Herrialde batzuk aberatsak baldin badira, eta pobreak besteak, zergatik ez dituzte herrialde behartsuek herrialde aberatsek jarraitu izan dituzten politika eta sistemak jarraitzen? Izan ere, behin baino gehiagotan ikusi izan da horretarako ahaleginik, baina arrakasta handirik lortu gabe. Arazoa sakondu gabe dirudiena baino askoz konplexuagoa da. Aurrena, ez dago akordiorik erabakitzerakoan zein sistema eta zein politika izan den herrialde aberatsei aberastasun hori ekarri diena. Bigarrenik, akordio hori lortzekotan ere, ez dago garbi politika edo sistema berdinek emaitza berdinik emango luketenik egungo herrialde pobreek dituzten geografiaren, kulturaren eta historiaren ezaugarrietan. Azkenik, arazo hori ikerketa askoren gaia den arren, gaia jorratu duten jakintsuek eta ikerlariek ez dute oraindik modu orokorrean aplika daitekeen eta leku guztietan baliagarria izan daitekeen ekonomiaren garapenari buruzko teoriarik eman.

Ekonomiaren garapenaren azterketa bideratzeko modu bat baino gehiago dago, eta, gehienetan, elkarrekin erabil daitezke modu horiek, batak ez du bestea baztertzen. (...) Beste ikuspegi gehienak ez bezala, historiatik eginiko ikuspegiak, egun ikusten ditugun garapen maila desberdinen jatorria azter dezake. Arazoaren jatorrien diagnostiko zuzenak ez du zertan konponbide egokirik ekarri behar, baina ia ezinezkoa da konponbiderik aurkitzea diagnostiko zuzenik eman gabe. (...)

1985ean, Estatu Batuetako biztanleen bataz besteko errenta 15.500 dolarretakoa zen. Suitzan, seguruenik Europako herrialde aurreratuenean, 16.500 dolar ingurukoa. Europako mendebaldeko bataz bestekoa 11.000 dolarretakoa zen. Herrialde horiek, Kanadarekin, Australiarekin eta Zeelanda Berriarekin batera, mundu osoko biztanleen %14a baino gutxiago biltzen zuten, baina errentaren % 58 ingurua eta mundu osoko industria produkzioaren % 80a baino gehiago. Aipaturikoei Japonia gehitzen baldin badiegu, portzentzaia horiek %16a, %67,5a eta % 88a bilakatuko dira; gainerako industria produkzio gehiena Sobietar Batasunean eta Europako ekialdeko herrialde sozialistetan eman zen, mundu osoko biztanleen %8a biltzen zuten herrialdeetan, alegia.

Beste muturrean, seguruenik mundu osoko herrialde pobreena izango den Txadeko bataz besteko errenta 100 dolarretakoa zen; Etiopian 110ekoa; Indian 260 ingurukoa, eta Indonesian 540 dolarrekoa. Txinan, mundu osoko biztanleen % 20 biltzen duelarik, errenta 300 eta 350 dolar artekoa da. Hegoamerikako bataz besteko errenta Boliviako 540 dolarren artean eta Venezuelak agertzen duen 3.410 dolarren artean (loa; aipatu behar da Venezuelak agertzen duen maila ikaragarria petrolioari esker dituen diru sarreren ondorioa dela.

1985ean, 500 dolarreko edo horren azpiko errenta zeukaten 43 herrialde zegoen, eta 500 eta 2.000 dolarren artekoa zeukaten beste 53. Bi talde horien barruan dauden herrialdeek izen desberdinak hartzen dituzte, herrialde "pobreak", "errenta baxua dutenak" eta "azpigaratuak" (edo, eufemismoak erabiliz, "gutxiago garatutakoak" edo "garapen bidean daudenak"). Errenta ikusirik, garbi dago pobreak direla, baina, zergatik azpigaratuak?

Bataz besteko errentaren estatistikak, kasurik hoberenean, ekonomiaren garapenaren mailaren neurri gordinak baino ez dira. Horrez gain, zenbait arrazoi tekniko direla medio, herrialde batzuetako errentaren eta beste batzuetakoen arteko konparazioek ez dute inolako konfiantzarik merezi. Badaude garapena edo azpigarapena neurtzeko beste neurri batzuk, eta, hain orokorrak ez badira ere, grafikoagoak dira. Hilkortasun maila altuaren ondorioz, pertsona bat jaiotzen denean bere bizi-itxaropena 40 eta 69 urte artekoa da, Asiako, Afrikako eta Hegoamerikako herrialde azpigaratuetan; mendebaldeko Europan eta Iparramerikan, berriz, 70 urte baino gehiagokoa da. Haurren hilkortasunak maila ikaragarriak hartzen ditu herrialde pobreetan. Datu horiek ikusirik, ez da guretzat inolako sorpresa ikustea osasunarekin erlazionaturiko prestazioak herrialde aberatsenetan askoz ugariagoak direla: Estatu Batuetan, bataz beste, sendagile bat dago 600 biztanleentzako, eta Austrian 400entzako; Bolivian, berriz, bat 2.000 pertsonentzako eta bat 14.000 pertsonentzako Zairen. Termino materialistagoak erabiliz, Estatu Batuetan, 1 .000 pertsonetatik 700 kotxe daude; Frantzian, 450; Ekuadorren, 41; Tanzanian, 3; eta Birmanian 1,3.

(...) Eguneroko bizitzan, hazkundea, garapena eta aurrerapena terminoak sinonimoak balira bezala erabiltzen dira. Hala ere, gure helburu zientifikoentzako, ezin bestekoa zaigu desberdintzea, desberdintasun horrek nolabaiteko arbitrariotasuna eskatzen baldin badu ere. [Hemen] ematen dugun ekono-

miaren *hazkundearen* definizioa, gizarte jakin batean ondasun eta zerbitzuen produktu osoaren ("output") jarraiko gorakada da. Azken hamarkadetan produktu oso hori nazioaren errentari edo nazio produktu gordinari (NPG) begiraturik neurtu izan da (estatistiken arabera desberdintasun txiki bat dago nazio-errentaren eta nazio produktu gordinaren artean, azkena zertxobait altuagoa izaten baita, baina gure helburuetarako ez dugu kontuan izango desberdintasun hori; biek batera mugitzen dira beti, norabide berean. Batzuetan beste kontzeptu bat ere erabiltzen da, barne produktu gordina (BPG), NPGaren eta nazio-errentaren tarteko balorea). Aurreko garaietan herrialdeek izan zituzten nazio-errentaren daturik ez baldin badago ere, batzutan posible da hori kalkulatzea, eta kasu guztietan, zifra zehatzak lortzen ez baldin badira ere, jakin ahal izaten da produktu osoak gora egin zuen, behera egin zuen edo maila berean mantendu zen epealdi jakin batean.

Produktu osoaren hazkundea produkzio faktoreen ("input") -lurra, lana eta kapitala- hazkundeak ekar dezake, ala ""input" kopuru baliokideen erabilera eraginkorragoak. Biztanleen kopuruak gora egiten baldin badu gerta daiteke produktu osoak gora egitea, baina ez du zertan gora egin behar pertsona bakoitzeko produktu osoak; gerta daiteke azken horrek behera egitea biztanleen kopuruaren hazkundea produktuaren hazkundea baino altuagoa baldin bada, azken urteotan azpigaraturiko zenbait herrialdetan gertatu ohi den bezala. Prosperitateari dagokionean, ekonomiaren hazkundea produktu "per capita" bezala neurtzen denean baino ez da kontuan-hartzeko modukoa.

Aldi berean, bi gizarte ezberdinetako produktuak edo gizarte berekoak baina oso epealdi ezberdinetakoak konparatzea oso zaila izaten da, bi arrazoi direla medio, batez ere. Normalean, nazioaren errenta eta antzeko neurriak diru-unitateetan ematen dira, baina unitate horiek oso balio ezegonkorra dute, eta sarritan zaila izaten da batzuen eta besteen arteko konparaketak egitea. Hasieran, behar duguna errenta "erreala" neurtzeko modua da, hau da, errenta balio egonkorra duten unitateetan neurtzea. (...) Bigarren arazoa bi ekonomia desberdinetan ematen diren produktuen konparaketa egiten dugunean sortzen zaigu, desberdintasun handia dagoenean euren konposaketan; esate baterako, bat, elaboraziorik behar ez duten -edo ia behar ez duten- nekazaritza-produktuetan oinarritzen denean eta, bestea, industri-produktuetan oinarritzen denean. Ez dago konponbide argirik eta behin betikorik arazo horrentzat, baina normalean arazo horren neurria ez da izaten azterketa egokia egiteko zailtzeko bezain handiak.

Ekonomi-*garapena* terminoak, (...) ekonomiaren hazkundea eta ekonomiaren antolakuntzaren eta egituren aldaketa sakona esan nahi du; horren adibidez, biziraupeneko tokiko ekonomia batetik merkatuetara edo merkataritzara pasatzea, edo industri ondasun eta zerbitzuen hazkunde erlatiboa nekazaritzarekiko. Egituraren edo antolakuntzaren aldaketa hazkundearen "zergatia" izan daiteke, baina ez du zertan horrela izan behar; batzuetan, zergatiak kontrako norabidetik joaten dira edo bi aldaketak ekonomiaren barnean eta kanpoan gertaturiko beste aldaketa batzuen ondorioak izan daitezke. (...)

Ekonomiaren hazkundea, hemen definitu dugun moduan, prozesu errebertsiblea izan daiteke. Hau da, hazkundearen ondoren gainbehera etor daiteke.

Ekonomiaren garapena ere errebertsiblea da modu berean, jakina, baino nahikoa arraroa izaten da egitura edo antolakuntza modu guztiz berdinetara atzerapausorik gertatzea. Normalagoa da ekonomiaren beherakada nagusi izan den epealdi luze bat bukatu eta berehala -edo prozesu horren barruan- ekonomiaren atzerapauso motaren bat gertatzea, atzerapauso bat antolakuntza modu sinpleagoetara, baina normalean desberdinak lehen zeudenekin konparatuz gero.

Gehienetan garapena eta hazkundea "gauza onak" bezala hartzen diren arren, biak, funtsean, baliorik gabeko terminoak dira, biak neurtu eta deskribatu baitaitezke arau etikoak kontutan izan gabe. Baina ez da hau ekonomiaren *aurrerapena* edo *progresoa* terminoaren kasua, definizio mugatuegia ematen ez baldin bada, bederen. Gaur egungo moralak maila berean jartzen ditu, sarritan, hazkundea eta garapena alde batetik eta aurrerapena bestetik, baina ez da beti egoten lotura hori. Irizpide moral batzuen arabera, ongizate material handiago bat txarra izango litzateke gizakiaren izpirituarentzat. Egungo irizpideekin ere ezin dira aurrerapen sinbolo moduan hartu gero eta arma nuklear, kimiko eta biologiko gehiago ekoiztea edo ingurugiroa pozoitzen duten produkzio sistemak erabiltzea, ekonomiaren hazkundearen manifestazioak diren arren.

Hazkundeak eta garapenak ez dutela zertan aurrerapena ekarri behar erakusten duen beste arrazoi bat, errenta per capitaren gorakadak ez digula errenta horren banaketari buruz ezer esaten da. Zer den banaketa "ona" edo "txarra", ekonomiaren alorretik at dagoen kontua da. Ekonomiak, zein banaketa motak hobetzen duen hazkundea egoera jakin batzuetan esan dezake, baina ikuspegi moral batetik hori argumentu zirkularra baino ez da. Iritzi moral batzuen arabera, hobea da errenta per capita baxuagoak eta modu egokiagoan banatuak izatea errenta altuak baina modu ez egokian banatuak izatea baino. (...)

Rondo Cameron, *Munduaren Ekonomi Historia labur bat, Paleolito Arotik gaur egunera arte*, 1989.[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Iban Zalduaren baimenaz].